

I. ERANSKINA  
ARLOAREN EDO IRAKASGAIAREN URTEKO PROGRAMAZIO DIDAKTIKOA  
EGITEKO TXANTILLOIA  
ANEXO I  
PLANTILLA PARA LA ELABORACIÓN DE LA PROGRAMACIÓN DIDÁCTICA  
ANUAL DE ÁREA O MATERIA

2016-17 Urteko/ikasturteko programazio didaktikoa  
*Programación didáctica anual/de curso 2016-17*

<b>ikastetxea:</b> <i>centro:</i>	IES Uribe-Kosta BHI	<b>kodea:</b> <i>código:</i>	015143
<b>etapa:</b> <i>etapa:</i>	Batxilergoa / DBHO	<b>zikloa/maila:</b> <i>ciclo/nivel:</i>	: 2.
<b>arloan/irakasgaia:</b> <i>área / materia:</i>	Espainiako eta Euskal Herriko Historia		
<b>osatutako arloak/irakasgaiak</b> <i>materias integradas/ áreas</i>	Hizkuntza eta Literatura arloak, IKT, Ekonomia eta Filosofia irakasgaiak		
<b>diziplina barruko oinarritzko kompetentzia elkartuak</b> <i>competencias disciplinares básicas asociadas</i>	<ul style="list-style-type: none"><li>• Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzia</li><li>• Giza eta arte-kulturarako gaitasuna/ Arterako kompetentzia</li></ul>		
<b>irakasleak:</b> <i>profesorado:</i>	Arantza Arredondo/ Araceli Diz	<b>ikasturtea:</b> <i>curso:</i>	2016-17

Zeharkako kompetentziak / *Competencias transversales:*

1. Hitzezko eta hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako kompetentzia
2. Ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentzia
3. Elkarbizitzarako kompetentzia
4. Ekimenerako eta espiritu ekintzailerako kompetentzia
5. Norbera izaten ikasteko kompetentzia

helburuak <i>objetivos</i>	ebaluazio-irizpideak <i>criterios de evaluación</i>
<p>1. Espainiako eta Euskal Herriko historiako gertakari, prozesu eta protagonistarik garrantzitsuenak identifikatu, aztertu eta azaltzea, eta denboran eta espazioan kokatzea, bi errealitate historiko horien egungo konfigurazioan izan duten eraginaz jabetzeko.</p> <p>2. Euskal Herriko eta Espainiako historia garaikideko gertakari eta prozesu historikorik garrantzitsuenak ezagutzea eta gertakari politiko, ekonomiko, sozial eta kulturalen arteko loturak identifikatzea, guztiak beren konplexutasun osoan ulertzeko.</p> <p>3. Historiaren kontzeptuak, terminoak eta oinarritzko teknikak behar bezala erabiltzea, hainbat informazio aztertu, konparatu eta bateratzea, eta ikerketa historikoko lanak</p>	<p><b>1. Euskal Herriko eta Espainiako historiaren aro garaikidea eta ezaugarriak identifikatzea eta denboran eta espazioan kokatzea, eta haien arteko aldeak eta antzekotasunak bereiztea(XIX-XX)</b> Bereizten ditu Euskal Herriko eta Espainiako etapa historikoak. Euskal Herriko eta Espainiako aro edo etapa bakoitzeko ezaugarri nagusiak aztertzen ditu. Gertakari, prozesu eta pertsonaia nabarmenak identifikatzen ditu aro eta etapa bakoitzean. Aurreko eta ondorengo etapa historikoak konparatzen ditu, zerk iraun duen eta zer aldatu den zehazteko. <i>Denbora-lerroak</i> egiten ditu, eta horretan, iturri egokiak aurkitzen ditu edo ikasi duena baliatzen du. Sintesiak egiten ditu lortutako informazioan oinarrituta. Gizarteak aurreko garaietan izan dituen ezaugarrien eta gaur egun dituen ezaugarrien arteko aldeak eta antzekotasunak zehazten ditu.</p> <p><b>2. Euskal Herriko eta Espainiako historiako prozesu historikorik garrantzitsuenak ezagutzea, eta gertakari politiko, ekonomiko, sozial eta kulturalen arteko loturak identifikatzea.</b> Garai historikoen ezaugarri ekonomiko, sozial, politiko eta kulturalak bereizten ditu. Ezaugarri horien elkarrekiko eraginak azaltzen ditu. Etapa historikoen laburpena egitean, harremanetan jartzen ditu alderdi ekonomikoak, sozialak eta politikoak.<i>Kontzeptu eta terminoen izaera ekonomikoa, soziala, politikoa edo bestelakoa bereizten du,</i> eta alor horietako beste kontzeptu eta termino batzuekin lotzen ditu. Dagokien garaian kokatzen ditu kontzeptu eta termino nagusiak, eta behar bezala ezartzen ditu horien arteko loturak. Garai historikoen dibertsitate kulturala deskribatzen du, eta dibertsitate horren adierazpenak bereizten ditu. Lortutako informazioan sintesiak egiten ditu. Iturriek eta egileek gertakari zehatzen aurrean duten jokabidea eta horien gainean hartzen dituzten ikuspuntuak interpretatzen ditu. <i>Lortutako informazioa aztertzen eta antolatzen du, eta egoki aurkezten ditu atera dituen ondorioak; aukeran, IKTek ematen dizkieten aukerak baliatuta.</i></p> <p><b>3. Historiaren kontzeptuak, terminoak eta oinarritzko teknikak erabiltzea, lehen eta bigarren mailako iturri historikoek betetzen duten zeregina balioestea, historialariaren lana aintzat hartzea eta jakintza historikoa etengabe lantzen ari den prozesua dela</b></p>

egitea (bakarka edo taldean), lehen eta bigarren mailako iturri historikoen garrantzia eta historialarien lana balioesteko.

4. Ikasgaiaren berezko edukiak ahoz zein idatziz behar bezala adierazi eta komunikatzea eta hainbat hizkuntza eta euskarritan adierazita dauden datu eta informazio historikoak hautatu eta interpretatzea, aztertutako prozesu historikoak behar bezala ulertzeko.

**ulertzea.** luzkinak egiten ditu, lehen eta bigarren mailako iturri historikoak erabilia. Zer iturri mota darabilen eta zer ezaugarri nagusi dituen antzematen du. Iturriek adierazten duten garaia, haien egileak, hartzailak, asmoak eta gainerako alderdiak identifikatzen ditu. Agiri jakinek historiako gertakariak eta prozesuak ezagutzeko egiten duten ekarpena ondorioztatzen du. Ikasitako garai historikoetan ageri diren kontzeptu eta termino historiko nagusien definizioa ematen daki. Iturri historikoak aztertzeke prozesuari erreparatuta, ulertzen du historiaren gaineko jakintza etengabe berregiten ari dela. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzen ditu azterketa eta sintesiko ikerketa txikiak egiteko, eta horietan, informazio askotarikoak aztertzen, kontrastatzen eta uztartzen ditu. Lehen eta bigarren mailako iturriak aurkitzen ditu (liburutegietan, Interneten, etab.), informazio baliotsua hartzen du horietatik, eta ikuspegi kritikoz balioesten du horien fidagarritasuna. Lehen eta bigarren mailako iturriak komentatzen eta interpretatzen ditu, eta aurretik dakienarekin uztartzen du horien informazioa. Informazioa argi eta txukun antolatuta ematen du, arloko hiztegi berariazkoa erabilia eta bitarteko ez-linguistikoak baliatuta, hala nola mapak eta grafikoak. Euskarri bat baino gehiago erabiltzen du lan hori egiteko (ahozko adierazpenak, idatziak edo euskarri digitalak).

**4. Egoki, berezkotasunez eta modu sortzailean adierazten ditu ikasgaiaren berezko edukiak, ahoz edo idatziz.** Zuzen erabiltzen ditu adierazpen modu askotarikoak: idatzizkoa, ahozkoa, ikus-entzunezkoa edo digitala. Adierazpen modu egokiena hautatzen du, edukiari eta hartzailari erreparatuta. Aztertutako informazioen laburpenak egiten ditu. Akats ortografikorik gabeko idatzi zorrotzak egiten ditu, gaiaren hiztegi espezifikoak erabilia. Kontzeptuekin eta garaiekin egin ditzakeen akatsak, anakronismoak eta bestelako akatsak nabarmentzen ditu. Gaur egun esanahi berezia duen hurbileko edo urruneko gertakariaren baten bilakaera deskribatzen du. Informazioa argi eta txukun antolatuta ematen du, ikasgaiko hiztegi berariazkoa erabilia, bitarteko ez-linguistikoak baliatuta, hala nola mapak eta grafikoak. Euskarri bat baino gehiago erabiltzen du lan hori egiteko (ahozko adierazpenak, idatziak edo euskarri digitalak). Zorrotz eta objektibotasunez interpretatzen ditu iturri historikoak eta egungo informazio-iturriak.

**5. Zenbait unitate kronologiko erabiltzea denbora historikoa grafikoki irudikatzeke eta "aldaketa" eta "iraupen" nozioak**

5. Datu historikoak biltzea eta, horretarako, denboran orientatzeko kategoriak (iragana, oraina eta etorkizuna), denbora-posizio erlatiboak (segida, aldiberekotasuna, diakronia, sinkronia), iraupenak (faktikoa, koiunturala, egiturazkoa, iraupen laburreko, ertaineko edo luzeko fenomenoak) eta denbora-neurriak (denbora-unitateak, denbora eta kronologia historikoa) erabiltzea, gizarteen bilakaera historikoa ordenatu eta sintetizatzeko.

6. Euskal Herriko eta Espainiako egungo gizarteari eta iragan historikoari buruzko ikuspuntu propioak argudiatzea eta ikuspegi uniformistak eta lokalistak gainditzea, aniztasuna errespetatzeko eta demokrazian eta berdintasunean oinarritutako bizikidetzaren ahalbidetuko duten irtenbideak kolektiboki bilatzeko.

**adierazteko, eta zenbait garaitan eta lurralde-eremutan erabiltzea. (XIX-XX)**

Badaki gertaerak eta prozesuak denboran, segidako garaietan edo garai jakin batean, gertatzen direla (diakronia eta sinkronia). Badaki kultura bat baino gehiago elkarrekin bizi zirela hainbat geografia-eremutan. Historiako aro nagusiak eta garai kronologikoak bereizten ditu. Modu kronologikoan ordenatzen ditu historiako gertakariak eta prozesuak, eta grafikoki adierazten ditu. Ardatz kronologiko bat egiten du gidoi baten urratsak jarraituta. Unitate kronologiko batzuk erabiltzen ditu eta zuzen egiten ditu gertakari, prozesu eta garai historikoen gaineko kalkuluak. Zerrenda kronologiko batean adierazten du garai berean izandako gertakariak eta prozesuak, eta horien arteko loturak ezartzen ditu. Zerrenda kronologikotan adierazten ditu elkarren segidan izan diren gertakari eta prozesu historikoak, horien arteko loturak egiten ditu, eta izan diren aldaketak eta iraun duten alderdiak identifikatzen ditu.

**6. Egungo gizartean ditugun eta Euskal Herriko eta Espainiako iragan historikoari lotuta dauden gai garrantzitsuei buruz dituen ikuspuntu propioak argudiatzea.**

Modu arrazoituan azaltzen ditu idatzietan eta debateetan Euskal Herriko eta Espainiako gizarteetan albiste diren gaien inguruan duen iritzia. Gainerako pertsonen Euskal Herriko eta Espainiako gizarteetan eta albiste diren gaien inguruko debateetan dituzten iritzia entzuten, ulertzen eta errespetatzen ditu. Euskal Herriko eta Espainiako gizarteetan den pluralismoa identifikatzen eta errespetatzen du. Euskal Herriko eta Espainiako gizarteek dituzten arazoaren aurrean kontzientzia konprometitu, arduratsu eta aktiboa du. Printzipio demokratikoetan oinarrituz, bizikidetzaren demokratikorako irtenbideak bilatzen ditu ikaskideekin; horrela jokatzeko ez denean jarrera kritikoa agertzen du, eta arbuiatu egiten ditu arrazak, generoak, erlijioak edo bestelako ezaugarrietan oinarritutako diskriminazioa

Giza eskubideak elkarbizitzarako oinarriko markotzat onartzen ditu, Euskal Herriaren oraintsuko eta gaur egungo historian gertatutako urraketa-egoerak baloratzeko erabiltzen ditu eta gatazkak konpontzeko orduan badaki bide demokratikoak eta baketsuak erabiltzen. Ondarea errespetatzen eta zaintzen du. Egungo egoerak ikertzen eta aztertzen ditu, haien aurrekariak eta jatorriko kausak bilatzen ditu, eta dakiena erabiltzen du gerta daitezkeen ondorioak aurreikusteko. Gaur egun esanahi berezia duen hurbileko edo

7. Gaur egungo gizartearen arazoak zein diren jakitea, haien jatorri historikoak aztertzea, eta dauden errealitateak eta egoerak ebaluatzea, haien inguruko iritzi pertsonal kritikoa eta arrazoitua izateko eta, hainbat eskalatan, jardun alternatibo eraginkorrak sustatu eta abian jartzeko, era horretan pertsonen arteko eta gizarte-taldeen arteko harremanak hobetu daitezken.

urruneko gertakariren baten bilakaera deskribatzen du. Lan egiten du ondo informatuta egoteko jakin-mina asetzeko, eta jarrera kritikoa du komunikabideek eta sareak ematen duten informazioarekin eta zabaltzen dituzten mezuekin. Iturriek eta egileek gertakari zehatzen aurrean duten jokabidea eta horien gainean hartzen dituzten ikuspuntuak interpretatzen ditu.

**7. Gaur egungo auzi batzuei buruzko eztabaidetan parte hartzea eta haietan iritzi arrazoituak ematea gizarte-zientzietan oinarrituta, eta besteen iritziak errespetatzea.**

Jarduera politikoen gaineko iritziak ematen ditu, batik bat, bere ingurunean egiten direnena, eta arrazoitu egiten ditu iritzi horiek. Iritzi askotarikoak daudenean eta gatazkak sortzen direnean, onartzen du, abiapuntu moduan, besteak arrazoi-puntu bat izan dezakeela. Elkarrizketa eta prozedura baketsuen alde egiten du, pertsonen, giza taldeen eta herrialdeen arteko gatazkak konpontzeko. Debateetan parte hartzen duenean, ahaleginak egiten ditu partaide guztiak adostutako konklusioak lor daitezen. Historian izandako gertakari jakinen gaineko hipotesiak planteatzen ditu. Pertsonen ekintza batzuen arrazoiak, testuinguru orokorra eta arrazoiak jakiteko interesa ageri du, eta aldaketa historikoen azalpenean txertatzen du ikasitakoa. Iturriek eta autoreek gertakari zehatzen aurrean duten jokabidea eta horien gainean hartzen dituzten ikuspuntuak interpretatzen ditu. Gaur egun esanahi berezia duen hurbileko edo urruneko gertakariren baten bilakaera deskribatzen du. Iturriek eta autoreek gertakari zehatzen aurrean duten jokabidea eta horien gainean hartzen dituzten ikuspuntuak interpretatzen ditu.

**8. Egungo gizartearen dauden hainbat gatazka eta erronkaren sustrai historikoak identifikatzea, eta informazio orokor eta historiografikora jotzea.**

Egungo egoerak ikertzen eta aztertzen ditu, haien aurrekariak eta jatorriko kausak bilatzen ditu, eta dakiena erabiltzen du gerta daitezkeen ondorioak aurreikusteko. Gaur egun esanahi berezia duen hurbileko edo urruneko gertakariren baten bilakaera historikoa deskribatzen du. Gaur egungo gizarteak bizi dituen egoerekin lotzen ditu iraganean gertatutakoak. Gizarteak aurreko garaietan izan dituen ezaugarrien eta gaur egun dituen ezaugarrien arteko aldeak eta antzekotasunak zehazten ditu. Pertsonen ekintza batzuen kausak, testuinguru orokorra eta arrazoiak jakiteko interesa ageri du, eta aldaketa historikoen azalpenean txertatzen du

8. Fenomeno historikoak zuzentzen dituzten prozesu eta mekanismoak aztertzea, eta egungo gizartearen bilakaeraren arrazoi ugariak ulertzea, historiaren ikuspegi orokor, arrazoitu eta kritiko bat izateko.

ikasitakoa. Iturriek eta autoreek gertakari zehatzen aurrean duten jokabidea eta horien gainean hartzen dituzten ikuspuntuak interpretatzen ditu. Zorrotz eta objektibotasunez interpretatzen ditu iturri historikoak eta egungo informazio-iturriak. Ondo informatuta egoten eta jakin-mina asetzen saiatzen da, eta jarrera kritikoa du komunikabideek eta sareak ematen duten informazioarekin eta zabaltzen dituzten mezuekin.

**9. Gertaera eta prozesu historiko garrantzitsuen arrazoiak eta ondorioak adieraztea, haien artean loturak egitea, eta ohartzea gizarte-gertakariak hainbat arrazoi izan ditzaketela.**

Gertakari eta prozesu historikoen eta sozialen kausak ezagutzen eta sailkatzen ditu. Gertakari edo prozesu historiko nabarmenetan eragiten duten faktoreetako batzuk identifikatzen ditu, zer izaera duten zehazten du eta loturak ezartzen ditu haien artean. Gertakari eta prozesu historikoen epe laburreko, ertaineko eta luzeko ondorioetako batzuk zehazten ditu. Kausa-efektuko harreman-kateak egiten ditu segidako hainbat gertakari edo egoera historikoren artean. Informazioaren laburbilduma egituratuak egiten ditu (denbora-lerroak, eskemak, etab.), eta horretan, iturri egokiak aurkitzen ditu, eman zaizkion datuak erabiltzen ditu edo lehendik eskuratu dituen ezagutzak baliatzen ditu. Testuen, mapen, grafikoan, taulen edo irudien gaineko iruzkinak egiten ditu eta horien gainean egiten zaizkion galderei erantzuten die. Lehen eta bigarren mailako iturriak aurkitzen ditu (liburutegietan, Interneten, etab.), informazio baliotsua hartzen du horietatik, eta ikuspegi kritikoz balioesten du horien fidagarritasuna. Pertsonen ekintza batzuen kausak, testuinguru orokorra eta arrazoiak jakiteko interesa ageri du, eta aldaketa historikoen azalpenean txertatzen du ikasitakoa.

**10. Euskal Herriko eta Espainiako egungo gizartearen irudi plural eta integratzaile bat lantzea, eta horretarako mota orotako informazioak aztertzea (sozialak, kulturalak, historikoak eta abar).** Alderdi komunak eta lurraldeen arteko aldeak identifikatzen eta ulertzen ditu Euskal Herriaren eta Espainiaren bilakaera historikoan. Euskal Herriko eta Espainiako gizartearen gaineko irudi plurala eta integratzailea du. Euskal Herriko lurraldeen arteko harremanak identifikatzen eta ulertzen ditu, baita inguruan dituzten beste herri eta errealitate historiko batzuekin dituztenak ere.

9. Egungo euskal gizartearen eta Espainiako gizartearen irudi plural eta integratzaile bat lantzea eta gizarte horien barne-heterogeneotasuna balioestea, haien bilakaera historikoaren ikuspegi orokor bat izateko.

Ulertzen du Espainiaren bilakaera historikoan eratu diren nazio- eta lurralde-errealitateen egituraketa. Badaki zer rol betetzen duen Espainiak, eta haren barruan, Euskal Autonomia Erkidegoak, integrazio europarreko prozesuan eta ulertzen ditu horren ondorioak. Herritar guztien bizi-baldintzak hobetzeko eta gizonen eta emakumeen arteko berdintasun efektiboa lortzeko ekintza indibidualak eta kolektiboak balioesten ditu.

Gaur egungo gizarteak bizi dituen egoerekin lotzen ditu iraganean gertatutakoak. Euskal Herriko eta Espainiako gizarteetan den pluralismoa identifikatzen eta errespetatzen du.

**11. Euskal Herriko eta Espainiako gizarteak dituzten arazoaren aurrean kontzientzia konprometitu, arduratsu eta aktibo bat garatzea.** Eskubide demokratikoen, giza eskubideen eta bakearen alde egiten du. Berak parte hartzen duen eskala desberdinetako erakundeetan –ikastetxea, udalerrria, lurralde historikoa...–, badaki jokabide demokratikoaren irizpideak erabiltzen diren ala ez desberdintzen. Sentiberatasuna, enpatia eta konpromisoa erakusten ditu mundu, estatu eta Euskal Autonomia Erkidegoko giza eskubideen urraketen biktimekin (diskriminazio eta bazterkeria mota guztiak, gerrak, terrorismoa, indarkeria,...), urraketa horiei aurre egin eta eraldatze aldera erakundearen eta gizartearen ekimenetan parte hartzen du. Ondarea errespetatzen eta zaintzen du. Ondarea ezagutzeko eta kontserbatzeko herri-ekimenetan eta ekimen instituzionaletan parte hartzen du.

**EDUKIEN SEKUENTZIA** [denbora-tarteka, unitate didaktikoak, proiektuka, ikaskuntza-nukleoka edo beste moduren batera antolatuta...].

**SECUENCIACIÓN DE CONTENIDOS** [organización en períodos, unidades didácticas, proyectos, núcleos de aprendizaje ].

### **1go. EBALUAZIOA:**

- 1. Antzinako Erregimenaren krisia (1788-1833): liberalismoa eta absolutismoa aurrez aurre.**
  - 1812ko Konstituzioa
  - Pertsiarren manifestua
- 2. Estatu liberalaren eraikuntza gatazkatsua Euskal Herrian eta Espainian (1833-1874).**
  - Mendizabalen desamortizazioa
  - Burdinbideen lege orokorra
- 3. Foruak eta liberalismoa: Karlismaldia eta foruen abolizioa.**
  - 1839ko urriaren 25eko legea
  - 1876ko uztailaren 21eko legea

### **2. EBALUAZIOA:**

- 4. Borboien berrezarkuntza: sistema politiko berri baten ezarpena , finkapena eta krisialdia(1874-1931).**
  - 1876ko konstituzioa
  - Joaquin Costaren berriztapenari kritika
- 5. Euskal Herriko industrializazioa eta gizarte ondorioak ( 1875-1923)**
  - Librekanbismoari eta protekzionismoari buruzko F.Echevarriaren hitzaldia(1893-12-09)
    - Blasco Ibañezen *El intruso* eleberraren pasartea
- 6. Langileen mugimendua eta Euskal Herriko nazionalismoa**
  - Euskeldun Batzokijaren estatutuak
  - La *lucha de clases* astekariko artikulua
- 7. II Errepublikak: 1931ko konstituzioa eta erreformak ( 1931-36)**
  - Clara Campoamor emandako hitzaldia Gorte Konstituziogileetan
  - Fronte Popularraren programa
- 8. II Errepublika eta Gerra zibila E.Herrian (1931-39)**
  - Euskal Herriko Autonomia Estatutua
  - Kontzertu ekonomikoak ezeztatzea

### **3. EBALUAZIOA**

- 9. Estatu frankistaren sorrera(1939-59)**
  - Erantzunkizun politikoen legea (1939-09-02)
  - Nazio-intereseko industriak babesteko legea (1939-10-25)
- 10. Diktadura frankistaren finkapena eta krisialdia ( 1959-75)**
  - Municheko Europako Mugimenduaren Kongrasuan hartutako erabakia (1967-01-11)
  - Estatuaren lege organikoa
- 11. Diktadura frankista E. Herrian**
  - Baionako Hitzarmena ( 1945-03-31)
  - A.Añoberos Bilboko gotzainaren sermoia (74-02-24)
- 12. Trantsizioa eta demokrazia Euskal Herrian eta Espainian 1975. urteaz geroztik**
  - 1978ko Espainiako konstituzioa
  - Euskal Herriko Autonomia Estatutua (1979-12-18)



**METODOLOGIA** [edukien antolaketa, jarduera motak, baliabide didaktikoak, ikasleen taldekatzeak, espazioen eta denboren antolaketa, irakasleen eta ikasleen eginkizuna... ikuspegi inklusibo batetik].

**METODOLOGÍA** [organización de contenidos, tipo de actividades, recursos didácticos, agrupamiento del alumnado, organización de espacios y tiempos, papel del profesorado y el alumnado desde una perspectiva inclusiva].

- Gaiari buruzko ahozko azalpena; edukiak aurkeztu baino lehen inguruko kontzeptuak arakatuko dira. Irakurketa ulergarria lantzerakoan, hiztegi historiko, soziologiko eta artistiko egingo da, orain arte landu gabe dagoenarekin
- Ulermena eta sintesia lantzeko hainbat ekintza jorratuko dira, eta hori lortzeko azpimarraketak eta eskemen elaborazioak garrantzi handia hartuko dute.
- Ikasgai bereko prozeduraren iruzkinak landuko dira
- Grafikoei dagokionez, interpretazio jarduerak eta haien lanketa egingo dira.
- Gaien arabera, talde txikietan zein handiagoetan antolatuko da klasea.
- Elkarrekiko laguntza-taldeak antolatuko dira
- Debateak egingo dira
- Baliabide digitalak zein ikus-entzunezko teknikak ohikoak izango dira ikasgelan
- Gure Hobekuntza Planean eta Hizkuntza Proiektuan adierazten den bezala, irakurmena lantzeko berenberegiko atazak egingo dira. Ataza horiek prestatzeko formakuntza lan saio batzuk antolatuko dira eta bertan landutakoa 3. ebaluaketan zehar ikasgeletan gauzatuko da

## BALIABIDEAK

### Baliabide analogikoak

- Testu liburua “**Espainako Historia**” **Zubia Santillana argitaletxekoa**
- Beste batzuk: hiztegien kontsulta, liburutegiko liburu monografikoak, aldizkarien eta egunkarien artikulatuak, apunteak, kontzeptu-mapa, mapa mutuak eta atlas historikoak

### Baliabide digitalak

- Informatika tresnak; power point, webquest, internet, denbora lerroak
- Institutuko IKT baliabideak gelako ordenagailua zein kañoia erabiliko dira saio gehienetan.
- Google apps-ek eskainitako tresnak: drive, calendar, e-mailak, google picture, youtube..... Aipamen berezia merezi dute [mintegiko sitea](#) zein [irakaslearena](#)
- [Classroom](#)

**EBALUAZIO-TRESNAK** [ahozko eta idatzizko probak, galdetegiak, banakako eta taldeko lanak, behaketa-eskalak, kontrol-zerrendak, ikasgelako koadernoak, portfolioa, kontratu didaktikoa...]

**INSTRUMENTOS DE EVALUACIÓN** [pruebas orales y escritas, cuestionarios, trabajos individuales y en grupo, escalas de observación, listas de control, cuaderno de aula, portafolio, contrato didáctico ].

**KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK** [ebaluazio-tresna bakoitzaren pisua eta balioa]

**CRITERIOS DE CALIFICACIÓN** [peso y valor de cada instrumento de evaluación].

<p><b>1. Azterketak:</b> Proba idatziek selektibitearen azterketaren egitura izango dute</p> <ul style="list-style-type: none"><li>● <b>Gaiarako</b><ol style="list-style-type: none"><li>a. Galdetzen denari egokitzeko gaitasuna</li><li>b. Kontzeptu eta hiztegi espezifikoa ondo erabiltzea</li><li>c. Gaia bere testuinguruan jartzea: beste gertakizun sinkroniko batzuekin erlazionatzea</li></ol></li><li>● <b>Testu iruzkinarako:</b><ol style="list-style-type: none"><li>a. Testuaren kokapena (testu mota, egile, jasotzaileak, garaia).</li><li>b. Testuaren analisia: testuaren oinarriko ideiak nabarmentzea</li><li>c. Testuinguruan jartzea: testua bere prozesu historikoan ezartzea</li><li>d. Testuaren garrantzia: Kokatzen den aldi historikoa ulertzeko, testu horrek duen garrantzia adieraztea</li></ol></li></ul> <p><b>2. Galdetegiak:</b></p> <p><b>%70</b> erantzun zuzena gaindituzat eman ahal izateko</p> <p><b>3. Banakako eta taldeko lanak</b></p>	<p><b>1. Ikasleen eguneroko lana eta aldizko lanak :%10:</b></p> <p>Ikasgaietako egin beharreko grafiko edota testu , irudi eta mapen iruzkinak eta ikerketak</p> <p><b>2. Froga objetiboak %90:</b></p> <p>Test eta azterketak</p> <p><b>3. Kontuntan hartzeko</b></p> <ul style="list-style-type: none"><li>● <b>Huts egiteek</b>, justifikatuta egon arren , ebaluaketako nota ere murriztu ahal izango dute. Beste aldetik <b>justifikatu gabeko etortze faltak %20ra</b> heltzen badira, ikasleak, ebaluazio jarraia izateko eskubidea galduko du. Berreskurapen frogetara aurkeztean, ebaluatuko da.</li><li>● Kurtsoaren zehar proposatutako <b>bolondreseko lanak egiten badituzte puntu bat lortu</b> ahal dute amaierako notan Puntu hori lortzeko ebaluaketa guztiak gaindituta izan behar dituzte. Lan motak:<ul style="list-style-type: none"><li>- Hiztegi historiko digitala</li><li>- Biografiak</li><li>- Denbora lerro digitalak</li><li>- Historia irudien bitartez</li><li>- Lan monografikoak</li></ul></li></ul>
<p><b>EBALUAZIOAREN ONDORIOAK [indartzeko eta zabaltzeko neurriak, antolamendu-egokitzapenak eta egokitzapen metodologikoak, emaitzen analisia, plangintza didaktikoaren berrikuspena, errekupeazio-sistema...].</b></p> <p><b>CONSECUENCIAS DE LA EVALUACIÓN [medidas de refuerzo y ampliación, adaptaciones organizativas y metodológicas, análisis de resultados, revisión de la planificación didáctica, sistema de recuperación ].</b></p>	
<ul style="list-style-type: none"><li>● Ebaluaketa bakoitza amaitzen denean, berreskurapen azterketa egingo da: Derrigorrezko lanak aurkeztu behar izango dituzte.</li><li>● Berreskurapeneko azterketetan ebaluaketan landutako gai guztiak sartzen dira.</li><li>● Ez ohiko azterketara doazenak ikasgai osoarekin joango dira , Selektibitateko eredu azterketa global bat egiteko.</li></ul>	

**OHARRAK / OBSERVACIONES**

<ul style="list-style-type: none"><li>● Salatu behar dugu ikasturtea hasi dela inolako informaziorik gabe. Jakin barik PAU mantenduko zen ala ez, mantetzekotan zein irakasgai sartzen diren edo azterketa mota bera den ala ez. Onarezina da irakaslegorako eta baita ikasleentzak ere.</li><li>● Beraz, ikasturteko programazioa egokitu da orain arte indarrean egon den selektibitateko eskakizunetara, Espainia eta Euskal Herriko Aro Garaikidea baino ez da landuko.</li></ul>
---